

Mallabitar eta ermuar...



munduan zehar

drogeteniturri



Ermua eta Mallabiko aldizkaria 188. alea 2011ko martxo

ETXEDREAMS-ek koltxoi-denda
berria zabalduko du Ermuan
laster!

ETXEDREAMS-EK 20 urteko esperientzia du,
apirilean erakusketa berria zabalduko du.

Atsedena diaz hitz egingo dugu?



943 177 041
ERMUA



UGARO

AHOLKULARITZA FISKALA,
JURIDIKOA
ETA KONTABILITATEKOA



Mutua General de Seguros

Fernando Orbe. ekonomista
Juan Jose Gorritxategi. abokatua

Zubiaurre, 27
177 postakutxa

ugaro@ugaro.com · forbe@ugaro.com

943 17 43 44

Faxa. 943 17 54 58

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)
247 posta-kutxa
943 17 93 50.
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran, Igone Amesti, Ibaia Azagirre, Estibalitz González, Asier Ibaibarriaga eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Ainhoa Solozabal, Miguel Ángel Ramos eta Alboka.

LAGUNTZAILEAK:

Virginia Aldalur, Ianire Daaira, Fede Iturriagagoitia, Silvia Izarra, Patxi López, Irune Martínez, Ibone Medina eta Valentín Mugarza.

ARGAZKIAK:

Alboka Musika Eskola, Artarral Mendi Taldea, Igone Amesti, Manu Fernández, Rosarito Ibaibarriaga, Alberto Lasuen, Miguel Ángel Ramos, Ainhoa Solozabal, Estibalitz González eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

688 63 28 76.

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Tamara Lorente, Nora Mateos eta Xabat Uzuriaga.

TIRADA:

2.200 ale.

ISSN:

11 33-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

Drogeteniturrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

KUKUA *Cuco Cuculus canorus*

Aspaldiko ustea da udaberrian kukuaren lehen kantua entzun, patrikara eskua sartu eta gainean dirurik baduzu, zorio-nekoa zu: urte guztian ez duzu diru faltarik izango! Afrikara bidean doala, gure parajeetan geldialditxo egin ostean, ez pentsa kumeak hazten denbora larregirik ematen duenik aurpegi gogor honek: berak kabirik egin ez eta inorenetan ipintzen du arrautza, gehienetan txanxangorriaren kabian. Aukeratutako kabiko txori emea kanpoan denean, bere arrautza jartzen du honen arrautzen ondotoxoan. Bere aldrakotzat hartuta, amaordeak lasai berotuko du arrautza erraldoi berria eta jaiotzen direnean, kukukumeak anaiordeak bultzatuz, gurasoen etxetik botako ditu, erresuma horretako errege bakartzat geratuz bera.



Hilabete honetan...

TALDE-TXOKO4 Txirindulari Elkarte	KIROLZALE17 Iratí Yarza
ELKARRIZKETA5-7 Ermuarrak Senegalen	IRITZIA18 Ermua ere basamortu?
MALLABIAN ZER?8-9 Ainhoa Solozabal	SALEROSKETAK19 Saldu, erosi edo agurtu
ERREPORTAJEA10-11 Alboka Musika Eskola Berline	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
MOTZEAN12 I. Zuhaitz Eguna	KALEKO INKESTA21 Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
ERMUAN ZER?15 '31 urte, 17 pausotan' hitzaldia	AGENDA22 Apirileko agenda
BOTEPRONTOAN16 Lutxi Alegria	

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Ermuko Txirrindulari Elkarte

Hogeita hamar urte pasatxo duen talde honek herriko ume eta gazteengan txirrindularitzarako zaletasuna piztea du helburu. Denboraldia apirilean hasiko da eta hortik aurrera lasterketetan ibiliko dira ermuarrak ia astebururo.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

1979ko uztailaren 19an jaio zen, San-tixauetan egiten den lasterketa antolatzeke ezinbestekoa zelako taldea legalizatuta egotea. Hala ere, urteen joan-etorriarekin, gero eta gauza gehiago antolatzen joan gara eta eskolako umeekin ere taldea osatu dugu, esaterako.

- Zenbat kide zarete?

9 eta 12 urte bitarteko 8 ume daude gurean; kadete eta jubenilen artean, berriz, 5 lagun. Elorrioko taldekoekin bat eginda gaude: umeak kadete egiten direnean, Ermukoak Elorriora joaten dira eta jubeniletara heltzerakoan, berriz, Ermukoak zein Elorriokoak Ermura datoz. Horrela, herri bien artean talde handiagoa sortzen dugu. 18 urte betetzen dituztenean Eibarrera joaten dira, Euskal Bizikletak duen Debabarrena taldera, eta horrela jarraipena ematen zaio gure taldeari.



- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Alde batetik, umeek 14 urte bete arte kirola egitea, txirrindularitza edo beste edozein kirol oso garrantzitsua delako. Hortik aurrera, bizikleta gustukoa dutenei kirol hau praktikatzeko jarraitzeko aukera ematea da gure helburua, ahal dugun gauza guztietan lagunduz.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete?

Urkaregi jatetxean edo elkarte gastronomiko batean biltzen gara astelehenero. Asteburuan gertatukoa eta hurrengo astekoak komentatzen ditugu. Tartean Alberto Lasuen (lehendakaria), Galder Lasuen eta Nerea Redondo (jubenilen arduradunak) eta Mari Jose Goigana (umeen arduraduna) biltzen gara. Gainera, denboraldia bukatzen denean bazkaria egiten dugu Elorriokoekin, umeen gurasoekin eta txirrindulariekin.

- Zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Eskolako umeek urte osorako egutegia izaten dute. Apirilean hasi eta irailera arte lasterketak izaten dituzte ia astebururo (22-25 lasterketa inguru). Ez dute errepidean korritzen, zirkuituetan baino, eta Ermukoa Hambreko industrialdean egiten dugu. Jubenilek 45 bat lasterketa egiten dituzte Bizkaian, errepidean, eta Ermukoa uztailaren 17an izango da aurten. Ziklo-krosekoek, berriz, 18-20 lasterketa egiten dituzte Euskal Herri osoan (iazkoa azaroaren 7an izan zen Ermuan).

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Interesa dutenek, Alberto Lasuenekin berba egin dezakete (686 944 123) edo ermukotxirrindulari@hotmail.com hlebidera mezu elektronikoa bidali.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDO CERYECERIA
NHEH

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

943 17 39 78



Pilar, Maria Rosario eta Miguel Angel:

“Aurten uzta ona izan dutenek datorren urtera arte izango dute zer jan”

Otsaila osoa igaro dute Pilar Perosanzek, Maria Rosario Arrizabalagak eta Miguel Angel Ramosek Senegaleko Sangué herrian. Tonbola Solidarioan jasotako diruaren zati bat, Hortensia Perosanz moja ermuarrak bertan burutzen duen elkartasun proiektuari egokitzen zaio urtero eta aurtengo diru-kopurua Senegalera helaraztea izan da lagun hauen bidaiaren zergatia, hala nola, medikamentuak eramatea. Trukean, bizipen ikaragarriak ekarri dituzte Sanguetik, penagarriak batzuk eta itxaropentsuak besteak.

- Bertara joan zareten lehen aldia izan da?

Pilar: Ez, Rosario eta Miguel Angelentzako bigarren bidaia izan da eta niretzat, hirugarrena. Ahizpari bisita egiteko egin nuen lehen bidaian Eibarko bi lagunekin joan nintzen eta askoz ere gogorragoa izan zen. Lur-jota geratu ginen bertakoen egoera ikusteko eta edozein bazterretan egiten genuen negar. Oraingoan, berriz, ez gaitu ezerk ustekabe harrapatu.

M. Rosario eta M. Angel: Guk beste leku batzuetara bidaiatzeko aukera izan dugu eta munduko beste hainbat tokitan askoz ere egoera latzagoak bizi direla ikusi dugu. Senegalen pobreak dira, oso pobreak, baina gutxienezkoa badute. Susperzen ari den herrialdea da eta euren baldintzak hobetzeko bide luzea egin behar dute. Hala ere, oso esperientzia ona izaten da bertara joatea, oso herrialde atsegina delako. Ate guztiak zabalik dituzu eta bertakoek irribarre batekin ematen dizute beti ongi-etorria.

- Zein izan da bidaiaren helburua?

Alde batetik, Tonbolan jasotako dirua bertan dauden mojej eramatea. Baina horretaz gain, beste hamaika gauza eraman ditugu, ezin da esku-hutsik joan eta! Jendeak emandako dohainak eta batez ere, sendagaiak



eraman ditugu. Antibiotikoak, analgesikoak eta tentsiorako sendagaiak eskatzen dizkigute mojek, baina jendeak soberan dituen guztiak jasotzen ditugu. Ermuko anbulatorioan soberan dituztenak ere ematen dizkigute.

- Nola antolatzen da hori guztia bertan?

Arduradun bat dago anbulatorioan eta berak kudeatzen ditu sendagaiak. Horrez gain, emagin eta erizaina dago. Senegalen milaka eta milaka GKE daude lanean eta elkartasun bidaietan joaten diren mediku eta farmazeutikoek ere, sendagaiak antolatzen laguntzen dute.

- Janaria eraman duzue?

Janaria ez, baina haziak bai. Bertako fruitu eta ortuariak errespetatzen dira (tomate mikatzak, bertako

piperrak, kalabazina, meloiak, laranjak, mangoak, sandiak...), baina oraingoan mahatso eta pikondo bana eraman ditugu, esaterako.

- Zenbat denbora darama Hortensia Perosanzek bertan?

Senegalen 46 urte daramatza, hainbat lekutan: herri txiki bateko leproserian hasieran eta Dakarreko eta M'Bour-eko eskoletan jarraian. M'Bour-en beste lan batzuk egiten hasi zen, ura ateratzeko putzuak, esaterako, eta herri txikiekin lan egiteko interesa sortu zitzaion. Orain Sanguetako herrian dago eta esan beharra dago Manos Unidas GKEarekin oso pozik dabilela.

- Zein da bere betebeharra Sanguetako?

M'bour-en 200 putzu inguru egiten lagundu zuen Hortensia eta Sanguetako herri ere, hori da bere helburu nagusia. Senegalek 3 hilabeteko eurialdia izaten du eta hilabete horietan senegaldarrek lurra lantzen dute: kakahue-

teak, artatxikia, kotoi-lan-dareak... Eurialdiak bukatutakoan, berriz, ezin dute ezer egin. Uzta ona izan bada, hurrengo uzta jaso arte jateko izango dute; bestela, ez.

- Lan asko eskatzen du ur putzu bat topatzeak edo egiteak?

Egia esateko arazo mordoa izaten ari dira Sanguetako. Aurretik, petrolio bilatzeko erabiltzen den antzerako teknika baten bidez, 16 metroko sakoneran ura topatu zuten, baina elektrizitatearekin arazoak dituztela eta, bertan behera utzi behar izan zuten proiektua. Orain putzuak egiteari ekin diote sanguetarrek mojen laguntzarekin. Penduluak erabiliz, lur azpian dagoen ura aurkitzeko gaitasuna duten zaoriek, 8 eta 16 metro bitarteko sakoneran hainbat lekutan ura dagoela ziurtatu baitutelako. Ur gazia ateratzen dute.

- Eta dirutan zein kostu du putzu batek?

Putzurik merkeenak 300

“Hortensia Perosanzek 46 urte daramatza Senegalen, horietariko asko ur-putzuak eraikitzen”

KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19 48260 ERMUA
Telefona 943 17 22 43 (Bizkaia)

euro inguru balio du, ur-ponpaz gain. Horiek pedalekin ibiltzea aurreikusten da, elektrizitatearekin dituzten arazoak ekiditeko. Putzu bakoitzak bere motorra izatea zoragarria litzateke, eguzki-zelulekin, baina oso garestia da. Kontraste handiko herrialdea da: errepide nagusienak bakarrik daude asfaltatuta, baina telefono mugikorra bazter guzti-guztietan erabil zenezake, seinalea egon badagoelako.

- Zenbat jende bizi da Sanguen?

4.000 lagunetik gora. Familiak oso handiak izaten dira eta senide guztiak inguru berean bizi dira. Handik 500 edo 600 metrora, beste fa-

milia bat bizi da. Oso lur-eremu handian bizi dira eta horrek gauzak zaildu egiten ditu.

- Zeintzuk azpiegitura dituzte?

Lehen eta bigarren hezkuntzarako eskolak dituzte herrian. Horiez gain, mojen esparruan eskolaurrea dute, anbulatorio xumea eta amaetxe txikia. Hala ere, amek, umea izan bezain laster, amaetxetik alde egiten dute, 24 ordu ere ez dira egoten!

- Putzuez gain, beste proiekturik badute?

Bai, emakumeei zuzenduta tailerrak burutzen dituzte batez ere. Xaboiak eta kremak egiten ikasten dute,

“Emakumeeek askoz ere lan gehiago egiten dute. Gizonak inplikatzeko beharrezkoa da”

mahai-zapiak tindatzen dituzte eta bi likore egiten dute. Gizonezkoen programak Hortensiaren ardurapean daude baita ere. Horiek josten ikasten dute, Afrikan, orokorrean, jostunak gizonezkoak izaten direlako.

- Leku baketsua da?

Bai, %90 musulmana da eta gainontzekoak katolikoak dira. Halere, ez dute inongo arazorik euren artean, errespetuz eta tolerantzia handiz jokatzeko baitute. Elkarrekin lan egin eta ezkondu ere egiten dira.

- Zein da emakumearen egoera?

Ezberdintasun handiak daude emakume eta gizonezkoen artean. Emakumeeek askoz ere lan gehiago egiten dute: ortuan

lana egin, bazkaria prestatu, arropa garbitu, ura putzuetatik atera eta etxeraino eramanez, artatxikia eta kakahueteak zuritu... Beti dute zerbait eskuartean. Gizonak, berriz, ezer egin gabe egoten dira askotan. Hortensiaren nahia bada gizonak lan gehiagotan inplikatzea, putzuen kontuan, esaterako. Onartezina litzatekeelako emakumeei lan gehiago ematea.

- Senegaleko beste txokorik bisitatzeko aukera izan duzue?

Bai, gu biok (Miguel Angel eta Maria Rosario), Dakarren egon gara astebetetz, Munduko Foro Sozialean parte hartu baikenuelako. Mojen ezagun baten alabaren etxean egin genuen lo eta horrek euren bizimodua ezagutzeko aukera eman digu. Sanguetik 80 kilometrora bakarrik egon arren, beste errealitate bat dago Dakarren. Gu egon ginen etxeokak taxi-gidariak ziren, eta inongo luxu barik, baina ondo bizi ziren.

Dorleta Vidal



Herboralia

Belar-denda

- Fitoterapia
- Aromaterapia
- Bach loreak
- Janari ekologiko eta biologikoak
- Bio-kosmetika
- Pertsonalizatutako dietak
- Teak pisura
- Masajeak

Zatoz medikuntza naturala probatzera!

Goienkale 4 - Ermua
943 17 37 04

Ainhoa Solozabal:

“Maratoia aitzakia izan zen Saharara joateko”

Mallabiko Ainhoak 34 urte ditu, emakume langilea izateaz gain, Jare eta Nile izeneko bi neskatoren ama da. Otsailaren 25etik martxoaren 5era arte Otzonoko Dorleta Landarekin batera Saharara joan zen maratoia egitera.

- Noiztik zabiltza korrika egiten?

Orain dela 4 urte, Jare jaio ostean, kirola egin nahian, ez nuen nire ordutegiarekin bat zetorren kirol jarduerarik bilatzen. Horrela, korrika egitea aukera egokia zela iruditu zitzaidan, kirol honek independentzia ematen zidalako.

- Bakarrik edo taldean aritzen zara?

Markinan astebururo sei emakume elkartzeko gara korrika egiteko. Markinatik Barinara arteko bidegorrian aritzen gara. Lau urte pasa dira ordutik hona, tartean hainbat lasterketatan parte hartu dugu: Donostiako Lilatoian (5km), Bilboko herri krozean (10km) eta azken bi urteetan Bruselan (20km).

- Eta nolatan joan zara Saharako maratoira korrika egitera?

Gurekin korrika aritzen den lagun batek urtero Saharako ume bat ekartzeko du udan. Berak eman zigun ‘Sahara maratoia’ proiektuaren berri. Horrela, aurrean bertara joatea pentsatu genuen, Sahara herriarekin bat egiteko asmoz.

- Aste horretan, korrika egiteaz gain, zer gehiago egin zenuten?

Tinduferra helduta gurekin batera korrika egingo zutenak ezagutu eta beraiekin egon ginen. Astelehenean izan zen lasterketa eta asteartean Saharako independentzia eguna ospatu genuen. Ondoren, ostiralera arte bertako familia ezberdinetan bizi eta irteera ezberdinak egin genituen, horietako batean ‘Lotsaren Harresia’ ikusteko aukera izan genuen.

- Zenbat lagun elkartu zintzen bertan?

Lasterketa hauetan, 20 herrialdetik gorako eta bost kontinenteetako korrikalariek hartzen dute parte. Euskal Herritik 40 lagun joan ginen, horietatik 8 bizkaitarrak.

- Eta maratoia nolako izan zen?

35 urtez dirauen gatazka batekiko nazioarteko kontzientziazioa eta mobilizazioa helburu duen elkartasunezko lasterketa bat da maratoia. Guretzako, aitzakia izan zen Saharara joateko eta bertako egoera ezagutzeko. Maratoia-aren barruan 4 lasterketa daude: maratoi osoa (42km), erdia, herena eta laurdena. Hasiara, gure helburua 5km-koa egitea zen, bertako berora eta harean korrika egitera ez baikaude ohituta, azkenean bidaiako kideak animatuta 10km-koa egin genuen.



- Zer moduz aritu zineten?

Gogorra izan zen, bero handia egiteaz gain, harri arteko harean aritu behar izan ginelako. Lasterketa bukatzean poztasun handia sentitu nuen! Esan bezala, nire helburua Saharara joan (sentsibilizazioa sustatu: Saharar Herriaren borroka ahaztu ez dadin eta errefuxiatuen giza baldintzak hobetzeko proiektuentzako diru-laguntzak eskainiz), maratoian parte hartu eta lasterketa bukatzea zen, beraz nahi nuena lortu nuen.

- Orokorrean zer nolako esperientzia izan da?

Esperientzia ikaragarria. Sahararren egoera, bizimo-

dua, egunerokotasuna... gertutik ikusteko aukera izan dut. Horrez gain etxeokoa eta ingurukoak ere proiektu honetan inplikatu ditut. Bertan oso jatorrak dira, ezin hobeto zaindu gaituzte. Bizitzan behin bizi beharreko esperientzia!

- Aurrera begira, beste proiekturik baduzu?

2012an Parisera joatea nahiko nuke. Saharara berriz joatea ere ez dut baztertzen. Nire kasuan zaila da, umeak utzi, lanean jai hartu eta bidaiak suposatzen duen gas-tua... hiru faktoreak lotzea gatza da. Ikusi beharko!

Igone Amesti
eta Ibaia Azagirre

ILEAPAINDEGIA
Izaskun
Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

ELUR
ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1 **943 17 60 52**

IZOTZ
IZOZTUAK

ERMUA
Merkatua
54-55 postuak
943174101

ARRASATE
Merkatua
943770598

Güeñes-Itsaso goi-tentsioko sare elektrikoa Mallabitik pasatzea nahi dute

Areitiotik pasatzekotan diren Güeñes-Itsaso goi-tentsioko sare elektrikoaren aurreproiektuaren berri emateko, martxoaren 15ean arratsaldeko 19.00etan Kultur Etxean egin zen lehen bilera herrikoia. Bileran, gehiengoa Areitioko auzotarrak izan ziren, nahiz eta auzo hau ez izan kaltetu bakarra, Zengoitita auzoa, dorreetatik 300 metrora baitago.

Proiektu hau Espainiako Sare Elektrikoak (ESE-REE) gauzatu du, sare hau beharrezkotzat hartzen baitute Abiadura Handiko Trenaren garapen eta hornikuntza burutzeko. Dorreek laurhun kilowateko indarra garraiatuko dute, bakoitzak 70 metroko altuera izango du eta oinarriak bakarrik 144 metro karratuko lur eremua hartuko du.

Sare elektrikoa, Berriztik etorriko da Mallabira. Nahiz eta aurreproiektu honetan dorreen kokapena zehatza ez izan, Arietzuko tontor ondoan doa lehen dorrea eta hurrengoa aurrekotik 510 bat metrora; hirugarrena aldiz, Zaldibarren jarriko dute, bigarren dorretik 488 metrora. Sare honek, 'plantxa' izeneko errepidea eta errepide nazionala zeharkatuko ditu.

Ingurumena

Espainiako legeak, sare elektrikoaren inguruan zera adierazten du: dorreek, etxe multzoetatik 500 metrora egon behar direla. Baina, aurreproiektu honetarako egindako ingurumen-eragin ikerketaren arabera, etxe multzorik gertuenak Zengoitita auzoan 300 metrora eta Areitioan 400 metrora daude; Iruatxeta, Ariño, San Trokaz eta Aitxu inguruak kontuan izan gabe. Aipatzekoa da 300 metrotik barrurako guneretan, 40 lagun bizi direla.

Honetaz guztiaz gain, aipatu behar da aurretik ere hor dagoela betiko sare elektrikoa. Hau kontuan hartuta, hainbat etxebizitza (San Trokazko etxeak eta Ariño gunea) sare zaharren eta berriaren artean geratuko lirake.

Urtebete barru, ingurumen sailak oniritzia emango dio aurreproiektu honi. 2013ko amaieran hasiko lirake erakitzen, 2015erako amaitzeko. Proiektu honetan 37 milioi euro inbertituko dituzte.

Kontrako alegazioak

Mallabiko Udalak proiektuaren kontrako bi alegazio aurkeztu ditu, bata Udaletxe kaltetuekin batera, eta bestea Mallabiko Udalaren izelean. Alegazioetan zenbait argudio aurkeztu dituzte. Besteak beste, dorreek osasunean izango duten eragin kaltegarria, etxebizitza batzuk bi sareen artean gertatzen direla, sareak egingo duen zarata, bizi-kalitatearen galtzea, talka bisuala, GR Mikeldi ibilbidea tartean harrapatuko duela, naturaren gozamenarako suposatzen duen muga, etxeek galtzen duten balioa, flora eta faunan eraginak, lehertze eta sute bezalako segurtasun arazoak.

Bestetik, Mallabiko Udalak alegazio eredu bat jarri du herritarren eskura, norbanako bezala, martxoaren 21 eta 25 bitartean Udaletxean aurkezteko. Bileran azaldu den bezala, aurreproiektu honen kontra egiteko eman beharreko lehen pausoa, alegazioak aurkeztea da. Kalte-tuez gain, herri osoaren parte hartzea ezinbestekoa dela ere gogorazi du Udalak.

Igone Amesti
eta Ibaia Azagirre



ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak,
telebistak, bideoak,
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

MUGA

KIKLOAK

San Pelaio 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA

MALLABIKO Herriko taberna

Eguneko platera (3€), menua,
plater konbinatuak, bokatak,
pintxoak, kazolak...

* Bazkari eta afariak
parrillan (enkarguz):
txuletak, arraina...

Enkarguak:
943 174 952
(asteartetan itzita)



Hallo Berlin!

Martxoaren hasieran Alboka Musika Eskolako 33 ikaslek eta 4 irakaslek Berlinera egin zuten bidai. “Giro ezin hobean”, hiriburu horrek eskaintzen dituen hainbat kultur ekitalditan parte hartzeko aukera izan zuten ermuarrek. Pena handiarekin inauteriez gozatu ezin izateagatik, ustekabe oso atseginak jaso zituzten ikasleek Alemanian, hala nola Katy Perryren kontzertua zuzenean ikusteko aukera.

Talde ezberdinetan banatuta, Parisetik eta Bruselatik abiatu ziren Alboka Musika Eskolako ikasleak Alemania-

rantz martxoaren 4an. Hogeita hamahiru lagunez osatutako tropelak (tartean bandako ikasleak, txistulariak eta trikitilari eta pande-



ro-joleak), Eskolako irakasle diren Silvia Izarra, Julen Izarra, Enrique Montero eta Agurtza Totorika izan zituen bidelagun. Hala ere, bidaiari-

ren antolaketa aspaldi hasi zen eta detaile guztietan sekulako ilusioa ipiniz, denbora luzea eman zuten Maite Askasibarrek eta Eva Zubizarretak Berlinerako irteera hau prestatzen.

“Musika banda bat izatean, kulturarekin zerikusia zuen leku bat aukeratu behar genuen bidai egiteko. Berlin iruditu zitzaigun aproposa eta hiri horrek hainbat ekimenetan parte hartzeko aukera eman zigun”, dio Silvia Izarrak. Eta ohiko ekimenez gain, tentsio berriei ere tartea egin ahal izan zieten. Horrela, Katy Perry abeslari kaliforniarraren kontzertua ikusi eta entzuteko aukera izan zuten ikasleek. “Sorpresa handia izan zen guretzat -dio Tamara Lorentek- ez genuen horrelakorik espero eta oso ondo pasatu genuen”.



★

BACKSTAGE
 6 - 16 URTEKOENTZAKO
ARROPA!
 Zubiaurre 30 · Ermua
 943 174 576

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA



komunitateak
 aseguruak
San Pelayo
 aholkularitza
 fiskal eta juridikoa
 Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
 San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

Hiriburuko monumenturik esanguratsuenak bisitatu zituzten. Besteak beste, Brandenburg-eko atea, bi Alemaniak banatzen zituen harresiaren zatiak eta museoak. Baina azken orduko gauzeta-rako astia izan zuten eta ikasleek jazz entzuteko gogoazaldu eta gero, Berlineko lokal tipikoenera joan eta Big Band baten kontzertua ikusi zuten. Ikasleek eu-

rek jotzen dituzten abes-
tiak entzun zituzten bertan
eta horrek aho zabalik utzi
zituen beste behin ere.

Metroan abesten

12 eta 22 urte bitarteko gaztetxoek hartu zuten parte bidaia honetan, nahiz eta multzorik handiena 16 eta 18 urte bitartekoa izan zen, eta horiek ingelesez komunikatzeko inongo arazorik izan ez zuten, hizkuntza ez

“Noizean behin ondo dator horrelako ekimenak antolatzea, ikasleentzako pizgarri dira”

zen traba izan hiriak eskaintzen zuen guztiaz gozatu ahal izateko. “Irakasleok harrituta geratu gara. Guk ideiarik ez, eta umeek ederto egiten zuten ingelesez! Konfiantzako jendea da eta oso gustura ibili gara, primerako bidaia izan da!”, diote.

Euren musika tresnak Berlinera eramateko aukera buruan bazerabilten ere, ezinezkoa suertatu zitzaizen, are gutxiago hegazkin konpainia merkeekin bidaiatzerakoan. Baina hala ere, ikasleek edozein txoko aprobe txatu zuten euren kante-
kin berlingarren egunak alaitzeko eta “Oso ondo egiten duzulako...” ha-
maika bider entzun zen martxoaren 7ra arte Berlineko kaleetan barrena. “Metroan ere, eurek izan ziren protagonista, euren kanta eta dantzekin -dio Silviak- eta jende gehienak eurak begiratzen ematen zuen bidaia!”.

Inauteririk ez!

Desadostasunak larunbatean heldu ziren, batzuek hemen inauteriak zirela eta, kalera irteteko gogoaz adierazi baitzuten. Joan aurretik, ikasleek bazekiten hemengo inauteriak galduko zituztela, baina momentua heltzerakoan... “amorrua eman zien! Guk beste plan batzuk genituen zapatu gauerako, agian ez ziren eurek espero zituztenak. Gainera asko ginen eta denontzako leku aproposatzea ez da erreza!”, dio Silviak. Baina domekan, aurreko egunekoak ahaztuta gustura ibili ziren berriro ere.

Horrelako bidaia urtero antolatzea ezinezkoa litzateke, neurri handi batean dirua eskatzen duelako. Halere, “ez da erreza hain talde handia denbora luzez mantentzea, batez ere horren gaztea den jendearekin lan egiten duzuean. Horregatik, noizean behin, ondo dator horrelako ekimen bat egitea, pizgarri moduan edo”, diote Silviak eta Maitek.

Dorleta Vidal



Ferretaria / Burdindegia

- * Burdindegia
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Giltzak / Aginte automatikoak
- * Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- * Opari artikulak

ANBOTO

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer_anboto@hotmail.com

MALLA
ileapaindegia

Probaleku 8, behea ☎ 943 17 18 50

OUTUMURO
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Astelehenetik ostiralera getan zabaltzen dugu

0 eta 8 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

mimitos

Zapatak, pijamak,
lentzeria, aulkiak,
sehaskak, tronak...
behar duten guztia!

Eta gainera 'Hello Kitty'-ren
artikulu mordoa!

Probaleku 4, Ermua • ☎ 943 033 830

KOKTELAK EGITEKO AUKERA BERBALAGUNEN

Apirilaren 5ean eta 12an koktelak egiten ikasi nahi dutenek hitzordua dute Eskilarapekon. Ikastaro honen lehenengo saioan 'ezagunak' diren koktelak egiten irakatsiko da, hala nola 'blodymary'a. Bigarrenean, berriz, Euskal Herrikoak eta ingurukoak prestatzen ikasi eta dastatzeko aukera egongo da. Interesa dutenek izena eman beharko dute: 639414205 telefonora deituta edo SMSa bidalita edota ermua_berba@aek.org helbidera mezua bidalita. Izena emateko epea martxoaren 28an zabalduko da.

UMEENTZAKO KIROL-EGITARAUA DOMEKETAN

Ermuko Kirol Erakundeak 5 eta 10 urte bitarteko umeei zuzendutako kirol-programa sortu du. Honek kirola eta dibertsioa uztartuko ditu eta martxoan, apirila eta maiatzeko igandeetan burutuko da, goizez. Hilero 40 umerentzako plazak eskainiko dira. Informazio gehiago, kiroldegian edo 943179090 telefonoan..

Artarrai Mendi Taldeak zuhaitzaren eguna ospatu du

Martxoaren 6an I. Zuhaitz Eguna ospatu zuten Artarrai Mendi Taldeko kideek eta Anaitasuna Ikastolako guraso eta ikasle talde handi batek. Ehun lagun inguru bildu ziren Joxio inguruan eta pagoez gain, hainbat lizar, astigar, urki, gereziendo, gaztainondo eta haritz landatu zituzten. "Ekintza honen bidez, zuhaitzek gizakiontzat duten garrantzia eta natur inguruneak babestu beharra nabarmendu nahi izan ditugu -dio Koldo Aranberriak-. Ez dugu ahaztu behar basoek duten eragina, besteak beste, CO₂ isurketaren murrizketa kudeaketan, negutegi efektuan eta basamortutze prozesuan. Azken hamarkadetan mundu mailan basoak neurrigabe desagertzen ari diren bitartean, guk behintzat urrats txiki, baina garrantzitsu hau eman dugu". Datozen urteetan ekimen honi jarraipena emateko asmoa du taldeak.

**Folkez Blai VI. lehiaketa martxan da**

'Folkez Blai' lehiaketa antolatu du Ermuko Udalak folk musikako herriko taldeekin lankidetzan. Urtero bezala, lehiaketa bi fasetan gauzatuko da. Lehenengoan, lehiaketara aurkeztutako grabazioak aztertu eta hainbat aukeratuko dira; bigarrenean, finalera heltzen diren 6 taldeek zuzenean joko dituzte beraien abestiak. Parte hartu nahi dutenek lau abesti jasotzen dituen grabazioa bidali beharko dute Ermuko Udaleko Kultura Sailera maiatzaren 15a baino lehen. Saiklatuta suertatu arren, sarituak ez diren talde guztiek 400 euro jasoko dituzte, emanaldia egiteko Ermuraino etorri behar izanagatik laguntza moduan. Irabazleak 3.000 eurotan baloratutako saria jasoko du eta bigarrenak 1.500 eurotakoa. Informazio gehiago jasotzeko, Ermuko Udalera jo daiteke.

**'Ermua Hiria' literatur lehiaketa abian da**

Ermua Hiriko XVII. literatur lehiaketak 1.600 euro banatuko ditu aurten. Bi modalitate egongo dira: narratiba eta olerkia eta modalitate bakoitzean 400 euroko bi sari banatzea aurreikusitako da (bata euskaraz idatzitako lanentzat eta bestea gazteleraz sortutakoentzat). Lanak aurkezteko epea maiatzaren 6an bukatuko da eta honek Udala Liburutegira eraman edo bidali beharko dira (Goienkale z/g, 48260-Ermua). Epaimahaiak maiatzaren 27an ezagutaraziko ditu irabazleen izenak. Informazio gehiago jasotzeko, Liburutegira jo beharko da.

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

EGANA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13
(Ermua)

ENKARGVAK
943 030 299

OSASUNA ETA EDERTASUNA
ILEPAINDEGIA
ESTETIKA

Marfil

FISIOTERAPIA

943 17 28 09
Goienkale, 12 - behea

Infreñu
Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

Mallabiko Itsaso Pradera palan txapelkun eta Aiala Amesti txapelkunorde txirrindularitzan



Martxoaren 5ean jokatu zen Euskal Herriko Emakumezkoen Gomazko Paleta txapelketako finala. Zarautzeko kiroldegian izan zen partida eta Itsaso Pradera mallabitarrak, bere bikote Laura Saezekin batera Hernaniko nesken aurka jokatu zuen. Partida polita izan zen, Itsaso eta Laurak 30 eta 20 irabazi zuten. Dozenaka lagun hurbildu ziren Mallabitik bertaraino; giro ederra izan zen partiduan. Zorionak berriro ere Itsaso!

Bestetik, Areatio auzoko Aiala Amestik, Bizkaiko pista txapelketan 2. saria lortu du. Aialak, Zaldibarko txirrindulari eskolan eman zituen bere lehen urratsak bizikleta gainean. Azken bi urteotan lurretako 'Ciclos Iturriaga' taldean dabil. Martxoaren 5ean, Trapagako belodromoan ospatu zen Bizkaiko pista txapelketan parte hartu zuen. Amestik, emakumezkoen kadete mailan, 'scratch', abiadura, kanporaketa, kalifikazio eta 200 metroko hainbat proba egin ondoren, 30 puntuko batezbestekoa lortu zuen. Horrela, podiumera igo zen 2. saria jasotzera. Zorionak Aiala!



Merkatarien Elkartek hainbat ekimenetan parte hartu du

Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako 15 herritako 100 dendetako arduradunek UNE 175.001 kalitate ziurtagiria jaso zuten Ermuan martxoaren 20an. Euskalit - Bikaintasunerako Euskal Fundazioa da ziurtagiriaren arduraduna, eta horrek bezeroari ematen zaion arreta, zerbitzua eta langileen profesionaltasuna egiaztatzen du. Ekitaldia Antzokian burutu zen eta, oraindik Drogeteniturririk daturik ez duen arren, Ermuko Merkataria eta Ostalarien Elkartearen arabera, 200 lagun biltzea espero zen. Tartean, Euskaldendak-eko lehendakaria den Bittor Lizarribar, Carlos Totorika alkatea eta alkateordea den Felix Prol,

Bestalde, **Inauterietan** trogloditaz mozorrotu ziren merkataria eta horrekin batera 'Inauterietako II. apainketa lehiaketa' egin zuten herriko tabernen artean. Guztira 13 taberne hartu zuten parte eta Kisska izan zen garaile. *"Epaimahaikide guztien adostasunez hartu genuen erabakia - diote Elkarteko kideek-. Batman-en kobazuloa bihurtu zuten taberna, harrigarria!, eta horri esker Gastronomía Jardunaldietarako 4 gonbidapen jaso zituzten".*

Honez gain, otsailaren 24a eta 26a bitartean **'Aukeren Azoka'** egin zen, *"arrakasta handia lortuz"*, arduradunek diotenez. Iaz baino 20 denda gehiagok hartu dute parte aurten (30 guztira) eta orain arte animatu ez diren gremioek ere, euren produktuak salgai jarri zituzten. *"Bakoitzak bere dendan ipini zuen azoka. Horrela, dendak barrutik ezagutzeko aukera ematen zaie bezeroei"*, argitu dute elkarteko kideek. Erosle guztien artean opari-sorta zozketatu zen eta Arantza Izagirrentzat izan zen, Blush arropa dendan egindako erosketari esker.

Merkataria eta Ostalarien Elkartek, bestalde, **hitzarmena** sinatu du Banco Guipuzcoano eta Banco Sabadellekin martxoan. Horri esker, abantaila eta baldintza bereziak izango dituzte Elkarteko 120 kideek, euren langileek eta senideek ere.

VII. UNI ENCOUNTER JARDUNALDIAK BURUTU DIRA

Martxoaren 15a eta 18a bitartean VII. Uni Encounter jardunaldiak izan dira Uni Eibar-Ermuak Ongarai auzoan duen ikasketen zentroan. Teknologia berriei eskainitako jardunaldi hauen baitan hainbat hitzaldi entzuteko aukera egon da eta horiek software librea, BigData, Androideak eta HTML hizkuntza izan dute hizpide. Ostiralean, eta ekitaldiei amaiera emateko, jokoei eskaini zitzaizkien eguna eta bertaratutakoek 'Guitar Hero', 'Counter Strike', 'Blur', 'Call of Duty' eta 'Pro Evolution Soccer' txapelketetan parte hartzeko aukera izan zuten.

BERBETAN JARDUNALDIAK AURRERA DOAZ

Martxoa eta apirila bitartean Berbetan jardunaldiak burutzen ari dira. Euskararen erabileraren inguruko gogoeta egiteko, hiru hitzaldi antolatu dira aurten. Martxoaren 16an lehena izan zen, 'Korrika, 31 urte 17 pausotan' (Mertxe Mugika eta Ederne Brouardekin), eta 22an 'Hika berba egitearen plazerra' solasaldia eskaini zuen Juan Martin Elexpuruk. Azkena, Julian Iantzi aurkezleak eskainiko du martxoaren 29an. 'Euskara konkistatzen' izenburupean, Lobianon arituko da Iantzi 19.00etik aurrera.



uriarte asesores ✓
Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

Quetzal

Arropa, bitxiak,
opariak... zer ez!

Goienkale 9 · ERMUA
943170065

Nazioarteko palindromistak Ermuan bilduko dira apirilean

Apirilaren 2an Nazioarteko Klub Palindromistaren urteroko topaketa egingo da Ermuan. Talde honek 20 urte pasatxo ditu eta topaketa Kataluniatik kanpo egingo duen lehen aldia izango da aurtengoa.

“Azken 3 urteetan Kataluniar joan izan naiz Klubaren topaketetara - dio Markos Gimeno - . Aurten eurek hona etortzea proposatu dut eta ados egon dira. Honi esker, Euskal Herrian dauden beste palindromistak elkar ezagutzeko aukera izango dugu”.

Palindromoak aurretik atzera eta atzetik



aurrera berdin irakurtzen diren hitz, zenbaki edo esaldiak dira eta hitz joko hauek sortzen adituak diren 26 lagun espero dira datorren hilan Ermuan.

Goizean, hitzaldiak eta gogetak egingo dituzte Lobianon eta eguerdian hainbat libururen aurkezpena egingo da. Tartean ‘Sé verla al revés’ liburua aurkeztuko da, Klubeko palindromistek sortutako hitz jokoak eta bitxikeriak biltzen dituen lana.

Tango kontzertua

Bazkaldu eta gero, palindromoaren irakurketa eta antzerkitxo bat egingo dira Lobianon (sarrera dohainik). Eta azkenik, 20.00etan Pablo Nemirovsky palindromistaren taldeak, ‘Tierra de Fuego’k tango kontzertua eskainiko du (sarrera 5€).

Topaketa honen inguruan hainbat ekimen burutuko dira Ermuan, bai aurretik eta baita hurrengo egunetan ere. Martxoaren 10ean hasita apirilaren 3ra arte, Markos Gimeno palindromistak sortutako palindromoaren erakusketak egongo da ikusgai Infréñu tabernan. Erakusketak ‘Hitzperimentu’ du izena eta 10 lan biltzen ditu guztira.

Udal Liburutegiak, bestetik, palindromoaren tailerrak egingo ditu DBH eta euskaltegiaren EGAKo ikasleekin apirilaren 4tik 6ra bitartean. Honez gain, palindromoekin zerikusia duten liburu, webgune eta blogekin liburuxka bat kaleratu du eta gaia honetara zerikusia duten hainbat liburu erosi dituzte mai-legurako baita ere.

Dorleta Vidal

Ardo banatzailea:

Riedel	Hugel&Fills
Avgstys	Anima Negra
Clos Mogador	Trache
Yllera	Cillar de Silos
Cantosán	Vriego
Luis Cañas	Laurona

DISTRIBUCIONES ARRAL
TELEFONOA: 943 17 60 75

ALBOKA

- Akordeoia	- Klarineta
- Biolina	- Panderoa
- Biolontxelo	- Perkusioa
- Bonbardino	- Pianoa
- Flauta	- Saxofoia
- Kantua	- Trikitrixa
- Gitarra	- Tronboia
- Gitarra elektrikoa	- Tronpeta
- Gitarra baxua	- Txistua
- Lengoia musikala	

**MUSIKA
ESKOLA**

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Cable Spot

25 urteko esperientzia dugu antena kolektiboak eta atezain automatikoak instalatzen.

Zure antena TDTrA egokitu.
**ETEN ANALOGIKOAK
GERTU DAGO!**

EUSKALTELEN BANATZAILEA

Telefonia mugikorra, zuntz-optikoa,
banda zabala, kable telebista... euskaltel

ERMUA. San Pelayo 4 behea. 943 172314

“Hizkuntzari dagokionez, herri honek ez du astiro joateko astirik”

Apirilaren 13tik 14rako gauean helduko da Korrika Ermura (01.00ean) eta Mallabira (1.30ean). Horrekin lotuta, ‘Korrika, 31 urte 17 pausotan’ hitzaldia eskaini zuten Mertxe Mugikak eta Edurne Brouardek Berbetan Jardunaldien barruan.

AEK-ko arduradun nagusia den Mertxe Mugika eta Korrikako arduradun Edurne Brouard bildu zituen mahaia-aren bueltan Korrikari buruzko solasaldiak. Alazne Aiestarane-ekin egiten zituen aurkezle eta moderatzaile lanak. Hitzaldiak ireki zituen aurtengo Berbetan jardunaldiak. Hona hemen bertan bildutakoak.

- Nola sortu zen Korrika?

E.B.: 80. urtean, helduen euskalduntze lana egiteko dirua behar zuela ikusi zuen AEK-k. Milaka proposamen aztertu ziren eta azkenean bi

ideia nagusi hartu ziren kontuan: diru asko oso denbora gutxian emango zuen ekimena egin behar genuela eta euskaren aldeko manifestaldi erraldoia egin behar zela.

- Helburuak lortu dituzue?

M.M.: Ez, 31 urte beranduago, gure helburuak ez dira bete esan behar dugu. Euskal Herria euskalduntzeko oraindik ere herritarrei laguntza eskatzen ibili behar izateak tristura ematen dit. Baina diruaz gain, hainbeste jende ikusteak indarra ematen digu baita ere.



- Zertarako erabiltzen da Korrikan jasotzen den dirua?

M.M.: Euskal Herrian, Nafarroan eta Iparraldean 102 euskaltegi ditu guztira AEK-k eta ia 9.000 ikasle. Horiei zerbitzu ona emateko profesional onak behar ditugu eta ikasleen kuotak eta instituzioetatik jasotako diru-laguntzak ez dira nahikoak. Azken Korrikan jasotakoarekin euskaltegia zabaldu zen Nafarroan, besteak beste.

- Zer sinbologia du Korrikak?

E.B.: Alde batetik, euskarraren eremu osoan egiten den manifestaldia dela. Bestetik, lekuko barruan dagoen mezua irteeratik helmugara helarazteko Euskal Herri osoko lagunaren parte hartzea ezinbestekoa dela. Eta azkenik, korrika egiten dugula: herri honek, hizkuntzari dagokionez, ez duelako astirik astiro ibiltzeko.

- Badakizue zenbat jende parte hartzen duen?

M.M.: Zaila da, baina Euskal Herrian bizi den 3tik 1ek modu batean edo bestean Korrikan parte hartzen duela esan dezakegu.

- Nola lortu da?

M.M.: Alde batetik, AEK-k ekimen honekiko hasieratik izan duen koherentziari esker. Bestetik, lan gogorari esker.

E.B.: Bai, AEKko kideek egiten duten lana miressgarria da.

- Euskal Herrikan kanpo ere Korrika egiten da?

E.B.: Bai, fenomeno ikaragarria da! Historikoki Madril,artzelona eta Londresen bizi diren euskaldunak Korrika egiten izan dute. Duela bi urte kontua izugarri igo zen eta aurtun Berlingen, New Yorken, Uruguain, Argentinan, Australian, Txinan, Belgikan, Suitzan eta Kolonbian egingo da Korrika, besteak beste. Afrika falta dugu!

Dorleta Vidal



Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

Pub Dakota

Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

Euskara eta euskaltegia
egin biak zureak

Teresa Murga, 2. solairua
Tel. 943 17 09 25

LUTXI ALEGRIA

- Non jaio zinen?

Bilbon jaio nintzen, baina hilabete gutxi nituela Markinara joan ginen bizitzera, aita han ari zen lanean. 13 urte nituela aita Madrilen hasi zen lanean eta gu ere bertara joan ginen.

- Markinako zeintzuk oroitzapen dituzu?

Oso onak, ederrak. Haurtzaro zoragarria izan nuen, aldatuko ez nukeena.

- Madrilgoak?

Itzelak. Gogoratzen dut abuztua zela hara heldu ginenean eta harrিতuta geundela egunero eguraldi ona eta zerua urdin-urdin zegoelako. Han ere zoragarri, lagun asko egin genituen eta izugarri ondo pasatu nuen.

- Ermura noiz eta zer dela eta etorri zinen bizitzera?

Senarrak jokatzeko zuen Madrilgo 'Recoletos' frontoia itxi zenean etorri ginen Ermura.

- Hiritik herrirako jauzia...

Madrilgo lagunak hori esaten zidaten, baina ni oso gustura etorri nintzen. Hemen oso gustura eta zoriontsu bizi izan naiz eta bizi naiz gaur egun ere.

- Beti egin duzu lana etxetik kanpo?

Madrilera joan ginenean, Bilbon Komertzioa ikasten ari nintzen eta Madrilen bukatu nituen ikasketak. 16 urterekin goizez klasera joaten nintzen eta arratsaldean aitarien lantegian aritzen nintzen. Ermuan ginela, Txantxiku taberna hartzea proposatu ziguten. Txantxikun geundela, Eibarko Auzitegian hasi nintzen lane-



67 urte ditu eta hiru ahizpen artean bigarrena da. Bilbon jaio eta Markinan zein Madrilen bizi ostean, Ermura etorri zen bizitzera. Txantxiku tabernan makina bat urte lanean jardun ondoren, Ermua Autoeskolan aritu zen erretiroa hartu zuen arte.

an eta azken 21 urteak Ermua Autoeskolan egin nituen.

- Nola uztartzen zenuen familia eta lana?

Oso ondo konpontzen nintzen. Egunean ordu betez etortzen ziren laguntzera, baina dena egiteko denbora nuen.

- Urte asko jende aurrean lanean...

Horregatik gustatzen zait horrenbeste etxean egotea.

- Noiz hartu zenuen erretiroa?

55 urte nituenean erabaki nuen lan asko egin nuela.

- Zer egiten duzu orain, lehen egiten ez zenuena?

Margotu, ikastaroak egin, lehenago yoga, orain pilates, bilobekin egon eta disfrutatu, bidaiatu, erakusketetara joan, irakurri... Astean behin Bilbora joaten gara akuarela ikastaro batera. Pozez zortzen nago, egia esan.

- Pintura duzu zaletasun.

Beti gustatu izan zait pintura, baina lana utzi arte ez nintzen pintatzen hasi. Izan ere, zerotik hasi nintzen eta orain egiten dudana oso modu apalean egiten dut.

- Bestelako zaletasunik?

Bilobei argazkiak egitea izugarri gustatzen zait, landa-

reak zaintzea, teontziak biltzea... 16 urte nituenetik Ermura bizitzera etorri nintzen arte, igandero joaten nintzen Madrilgo azokara. Orduan hasi nintzen teontziak biltzen.

- Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Uste dut ez dagoela ezer berezirik. Saiatzen naiz ez haserretzen.

- Zerk pozten duzu eguna?

Familiak. Zorte itzela daukat hiru alabak eta bilobak gertu ditudalako.

- Pertsona positiboa zara?

Zalantzarik gabe. Uste dut batzuetan baikorregia naizela.

- Bizitzak zer irakatsi duzu?

Gauzei konponbidea bilatzen eta gauzak modu positiboan begiratzen.

- Disfrutatu duzu bizitzaz?

Dudarik gabe. Ahal izan dudana eta gustuko izan ditudan gauza asko egin ditut. Gozatzeko jarraitzea espero dut.

- Bidaia bat nora?

Tunez, Egipto ezagutzeko gustatuko litzaidake. Londres eta Estambulen egonda nago, baina bueltatuko nintzateke lasaiago.

- Irakurtzen ari zarena?

Cristina Moratoren Cautiva en Arabia.

- Biziorik?

Gozo asko jaten dut.

- Zer da egunero kale egin gabe egiten duzun hori?

Egunkaria irakurtzen dut goitik behera.

- Zerbait egin ez izanaren penarik baduzu?

Euskara eta ingelesa gehiago ikasi ez izanaren pena dut.

Alazne Aiestaran

blush
Santiago Plaza 3, behea · ERMUA
943 10 82 42

PUB YOMY
Zubiaurre
kalearen
bihotzean

PRODUCTOS
SELECTOS
URDAITEGIA - CHARCUTERIA
MATE
Plaza del Mercado
Tel. 17 24 12
ERMUA

Irati Yarza:

“Gimnasia egunero dago zerbait hobetzeko”

14 urte ditu ermuar honek. 7 urte zituenetik, gimnasia munduan dabil buru-belarri. Gaur egun Eibarko Ipurua taldeko kidea da. Iaz taldekako sailean Gipuzkoako txapelduna izan zen eta Euskal Herriko hirugarren postua lortu zuen. Abenduaren hasieran Espainiako txapelketan izan zen, lan polita burutuz.

- Nolatan hasi zinen gimnasia munduan?

Zazpi edo zortzi urte inguru izango nituen. Ermuko taldean hasi nintzen eta orduan jolas bat zen niretzako, baina pixkanaka hobetzen joan naiz eta momentu honetan federatuta nago Eibarko Ipurua taldearekin.

- Ordu asko entrenatzen duzue?

Astearte eta ostegunetan izan ezik, astean 5 egunez entrenatzen dugu. Hogei ordu guztira.

- Zer da lantzen duzuen?

Musika, koordinazioa eta, batik bat, malgutasuna. Oso gazte hasi arren, adinarekin pixkanaka malgutasuna galtzen joaten zara eta behin baldutakoan zaila da hori berreskuratzea. Dena den, gimnasia egunero dago zerbait hobetzeko.

- Gazte asko dabil gimnasia munduan?

Bost urtetik hasi eta makina bat gazte gabiltza honetan. Eibarren, mutil bakarra dago talde osoan.

- Euskal Herrian zelako maila dago?

Jendeak uste baino jende gehiago dabil honetan. Donostian, Bermeon, Bilbon eta Gasteizen oso maila oneko taldeak daude. Almodena Cid, munduko txapeldun ohia, Gasteizko taldetik atera zen, besteak beste.

- Urtean zehar makina bat txapelketa dituzue...

Urtariletik ekainera bakarkako txapelketak izaten ditugu eta abuztutik abendura taldekakoak.

- Iaz emaitza onak lortu zenituzten.

Taldea Gipuzkoako txapeldun eta Euskal Herri mailan hirugarren postua lortu genuen. Abenduaren hasieran, Logroñon izan ginen Espainiako txapelketan eta lan polita egin genuen.



- Pelota, uztai, soka, maza, zinta... zein duzu gustukoa?

Niri pelota gustatzen zait batez ere. Halere, hortxe moldatzen naiz okerren.

- Zer moduz ikasketekin?

Momentuz moldatzen naiz. Kirol honek ordu asko eskatzen dizkit eta gogorra da Eibarko entrenamenduetatik etorri eta hurrengo egunean azterketa izanez gero, ikasten hastea. Amak

ere sarritan gogoratzen dit: “Hau bai, baina ikasketetan ere pentsatu ezazu”.

- Zer izan nahi zenuke etorkizunean?

Umetatik aktore nahi izan dut eta horixe landu nahiko nuke etorkizunean.

- Aurtengo urterako helburua?

Bakarka, Euskadiko Txapelketarako sailkatzea da nire helburua.

Asier Ibaibarriaga



**CITROËN
AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta 3 L8 pab.
Tel. eta Faxa. 943 17 04 14

**solozabal
tabakoak**



torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



**dulce
bebé
DULCE
BEBÉ
PEQUE'S**

**Eskaintza
handiak
pueri-
kulturan**

Zubiurre 30 · ERMUA
943 170 005

Ermua ere basamortu?

Azken hilabeteetan, denok ikusi ahal izan dugu nola herri guztietan hamaika denda itxi dituzten. Berdin da arropa denda, jatetxe edo taberna, krisiak mota guztietako saltokiak jo baititu bete-betean. Lehen, saltoki bat ixten zenean, bagenekien laster beste berri bat jarriko zutela. Orain, ordea, inork ez du ezer irekitzen. Horren ondorioz, segur aski, batetik baino gehiagok bere buruari galdetu dio ea herriak basamortu bihurtuko diren edo noizbait krisitik atera ahal izango garen.

Ekonomia hain ongi ez dabilen honetan, sakelari gehiago begiratzeko zaio. Aurrezteko izaten dela diote batzuek, eta badaezpada edo beldurratik ari direla beste-

ak. Baina jendeak gutxiago gatatzen du. Orain arte, begiarekin erosten zuenak orain merkeenari begiratzeko dio. Halere, gezurra dirudien arren, negozio berriak irekitzera ausartu direnak ere bada dira.

Betidanik entzun dugu elkartasunak indarra egiten duela eta aurrera jarraitzeko ezinbestekoa dela uste dut. Duela urte batzuk, eta merkataritzak aldakuntza handia zuela ikusita, herrietan Merkatarik elkartek martxan ipini ziren. Ermuan ere badaukagu Merkatarik eta Ostalaritza elkarteak: bazkide diren komertzioek Ermuko merkatarien interesak defendatzen dituzte eta elkartearen babesa jasotzen dute. Horrez gain, sortutako




Ibone Medina

elkartasunarekin, abantaila ugari dituzte bezeroek euren ordainketak egiteko. Horren adierazle, Merkatarik elkartek iaz atera zuen 'Ermua' txartela. Horri esker, erabiltzaileek hainbat abantaila dituzte: deskontuak, opariak lortzeko puntuak eta zozketetan parte hartzeko aukera, besteak beste.

Baina ez da nahikoa! Kontsumoa pizteko zerbait gehiago egin behar da! Krisiak hor jarraitzen du eta, politikoen arabera, 2012ra arte jarraituko du. Aurrera egin nahi badugu, beraz, orain arte bilatu diren konponbideez gain, beste neurri batzuk proposatu behar dira, eta horiekin herriarrok eta herriak ere irabazi egingo du, desertuak gugandik uxatuz.

Orain arte begiarekin erosten zuenak, merkeenari begiratzeko dio gaur egun



IKASTOLA
38 urte Ermua euskalduntzen




TXINDURRI
TALDEA
Tokian tokiko



Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

PRO



- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

ESKAINITZA BEREZIA
OSTIRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA



Apirilaren 18a
Zorionak Luken 2 urte betetzen dituzun egunean, etxekoan partez.



Apirilaren 11
Zorionak Arene zure 4. urtebetetzean gurasoen partez. Asko maite zaitugu! Musu handi bat.



Martxoaren 22a
Zorionak June zure 11. urtebetetzean! Musu handi bat ama, aita eta Karlaren partez.



Apirilaren 8a
Zorionak Eider! Gure etxeko sorginak 2 urte beteko ditu. Familia guztiaren partez bi musu handi eta oso ondo pasa!



Apirilaren 8a
Zorionak Jean Carlos zure 19. urtebetetzean! Musu handi bat familiaren partez.



Martxoaren 30a
Zorionak Julene!!! 8 urte! Musu handi bat Ibai, ama eta aitaren partez!



Martxoaren 29a
Zorionak Jone!! Musu handi bat Aitzol, ama eta aitaren partez eta ondo pasa zure 8. urtebetetzean.



Martxoaren 28a
Zorionak Maite familia guztiaren partez. Musu bat eta ondo pasa zure egunean



Apirilaren 1a
Zorionak Ramon! Jone, Aitzol eta amaren partez, oso-oso ondo pasa zure egunean.



Martxoaren 26a
Zorionak Lierni, oso ondo pasa eta muxu bat Jone eta Aitzolen partez.



Apirilaren 13a
Zorionak Ibai zure 13. urtebetetzean! Muxu handi bat Julene eta etxekoan partez!



Martxoaren 27a eta apirilaren 12a
Gure etxeko bi txinpartatxuei, Peru eta Kattalini, egunotan urte bete eitzen dabela, zorionak eta mosu bana. Muuuu eta muuuu. Aitxitxa-amuma, izeko-osabak eta abarrok.

**Azken eguna:
apirilaren 11**

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

943172665 ERMUA

Zubiaurre 20

*Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona*

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Giltzak
- * Tresneria
- * Zerrailgintza
- * Brikolaia
- * Kit altzariak
- * Rielak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUZKILORE

**MALLABIA
1987**

'Korrika 5' Hendaian hasi zan 1987ko apirilaren 3an eta Bilbon bukatu zan hilaren 12an. Argazki hau apirilaren 6koa da. Bertan agertzen dira:
Kontxi Arriaga,
Alazne Mugarza,
Idoia Markina,
Alberto Madariaga,
Aitor Txurruka,
Ismael Aranburu,
Irene Sarasua
eta Josu Garitagoitia.

**ERMUA
1973**

Argazkia Joseba Azkarate Ibaibarriagak atera zuen eta egun horretan Alvaro Aja Ibaibarriaga, Zorion Zamakola Ibaibarriaga eta Isaac Azkarate Ibaibarriagaren jaunartzea ospatu zen. Argazkia 1973. urtean atera zen, Mallabiko elizaren eskailetertan.


Aurreko lerroan, ezkerretik eskumara: Alvaro Aja Ibaibarriaga, Ricardo Losada Ibaibarriaga, Andoni Azkarate Perez eta Kepa Olalde Azkarate.

Bigarren lerroan, ezkerretik eskumara: Mari Jose Azkarate Perez, Nekane Olalde Azkarate, Maria Elena Romano, Aurora Romano eta Mikel Olalde Azkarate.

Hirugarren lerroan, ezkerretik eskumara: Maria Cristina Romano, Ikerne Zamakola Ibaibarriaga, Mitxel Aja Ibaibarriaga eta Aitor Aja Ibaibarriaga.

(Informazioa: Rosarito Ibaibarriaga Uriarte).

* Zure argazki zaharrak Drogeteniturrin kaleratzea nahi baduzu, ekarri Elexostera (Erdikokale 2, 1.) edo bidali posta elektronikoz drogeten@gmail.com helbidera.

**TOLDOS Y PERSIANAS ORBE**

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)



www.joyeriasenen.com / joyeriasenen@gmail.com

Ermua Antzokiaren obrak 2008ko urrian hasi ziren. Bi urte pasatxo beranduago eta 3'8 milloi inbertitu eta gero, herriko antzokiko ateak berriro ireki dira .

**Obra hau beharrezkoa zela uste duzu? Kanpotik duen itxura gustatzen zaizu?
Barrutik ikusteko aukera izan duzu?
Erabiliko duzula uste duzu?**

Nire ustez beharrezkoa zen obra egitea, itxura txarra zuen-eta. Kanpotik duen itxura gustatzen zait, baina sarreraren kokalekua txarra dela uste dut. Barrutik ikusteko aukera izan dut eta nire aburuz eserlekuak ez dira batere erosoak eta ez da askorik aldatu. Halere, erabiliko dela pentsatzen dut, bai musika eskolako kontzertuetarako eta baita pelikula eta antzerkietarako ere.



Oihane Vega, 18 urte



Oso beharrezkoa zen. Kanpoko itxura atsegin dut. Gehien gustatzen zaidana goikaldeko kubo da eta oso garrantzitsua iruditzen zait barruko aldean argi asko sartzen baita. Eraikina barrutik ikusteko aukera izan dut eta dotore dagoela iruditzen zait. Erabiliko dela uste dut, orain dela gutxi zabaldu da eta dagoeneko jendeak asko erabili du, antzerki onak ekartzen ari dira-eta.

Amaia Escalera, 19 urte



Bai, ekitaldi kulturaletan dirua gastatzea ez da ideia txarra eta dirua badago, inbertsio ona iruditzen zait. Ez zait asko gustatzen kanpotik, goian duen kupula oso nabarmena baita. Barrutik ikusteko aukera izan dut, baina ez dut ez filmik ezta ekitaldirik ikusi ere. Lehen baino gehiago erabiliko dela uste dut merkeagoa baita eta gauza gehiago ekartzen baitituzte.

Elena Alvarez, 20 urte

Bai, beharrezkoa zen oso zahartuta zegoelako. Polita da, baina sarrera ez da nire gustukoa, oso isolatua dago eta ez da ondo ikusten. Barrutik ikusi dut, inaugurazioan parte hartu nuelako txistua jotzen. Itxura oso polita du, baina gozoki-denda falda du. Uste dut erabiliko dela, baina lehen baino pelikula hobek ekarri beharko dituzte, berriagoak, gaur egunekoak.



Aitor Arrizabalaga, 16 urte

Zine berria beharrezkoa zen, kultura sustatzeko. Polita iruditzen zait, baina kanpotik ikusita Bilboko BEC-en antza hartzen diot. Bai, bertan izan naiz eta polita da. Erabili egingo dela uste dut, Ermuan kultur maila altua dago-eta.



Josu Gomez, 17 urte



Bai, nire ustez obra hau beharrezkoa zen, izan ere aurreko eraikina nahiko zaharkituta baitzegoen. Barrutik ikusi dut eta musika eskolarekin bertan jotzeko aukera ere izan dut. Ermuko Antzokiak herriko gazte ugari jasoko dituela pentsatzen dut, kulturaren aldeko apustua eginez.

Asier Cascan, 17 urte

Ianire Daaira eta Irune Martínez

Bar London
Komentukua 2, Ermua
Tlf: 943173312

optika itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

**UMEENTZAKO
ZINEA**

- Hilak 3:**
'Zigortzaileak'
- Hilak 10:**
'Rango'
- Hilak 17:**
'Gnomeo y Julieta, 3D'
- Hilak 24:**
'Toy story, 3D'
17.00etan. Antzokian.

**UMEENTZAKO
EKITALDIAK**

- Hilak 9:**
Haurrentzako ipuin-kontaketa (korrika kulturala).
17.30ean. Liburutegian.
- Hilak 9:**
Haurrentzako antzerkia:
'Golulá'. Galitooñ t aldea. 17.00etan.
Ermua Antzokian.
- Hilak 16:**
Haurrentzako antzerkia:
'Julio Vernereren azken abentura'. Gorakada taldea. Antzokian.

DANTZA

- Hilak 9:**
Plazara dantzara, Patxi Pérezekin. 18.30ean. Plazan.
- Hilak 10:**
Euskal jaia. 11.00etatik aurrera. Plazan.

ZINE-KLUBA

- Hilak 7:**
'Pa Negre.'
- Hilak 14:**
'Buried'
- Hilak 21:**
'Los veraneantes'
- Hilak 28:**
'Los cuatrocientos golpes'
20.30etan.
Ermua Antzokian.

MUSIKA

- Hilak 2:**
Tangoen kontzertua:
Pablo Nemirovsky.
20.00etan. Lobianon.
- Hilak 5 eta 6:**
Alboka Musika Eskolako ikasleak. 19.30ean.
Ermua Antzokian.
- Hilak 9:**
Rock kontzertua: Multa + Egara (Korrika kulturala).
22.00etan. Infreñun.
- Hilak 15:**
Iván Ferreira. 22.15ean.
Ermua Antzokian.
- Hilak 16:**
Rock kontzertua:
Disorders (korrika kulturala). 22.30ean.
Infreñu tabernan.
- Hilak 30:**
Ermuan Kantuan (kalejira). 12.30ean.
Plazan.

ZINEA

- Hilaren 2tik 4ra:**
'Primos' + 'Cisne negro'
- Hilaren 9tik 11ra:**
'Valor de ley' +
'Los chicos están bien'
- Hilaren 16tik 18ra:**
'El rito' +
'El discurso del rey'
- Hilaren 23tik 25era:**
'The fighter' +
'Chico y Rita'
- Hilaren 30etik 2ra:**
'Torrente 4, 3D' + 'El mundo según Burney'.
Ermua Antzokian.

ANTZERKIA

- Hilak 1:**
'Anda jaleo', Mikel Areitio, Alain Kortazar eta Jesús Pardorekin.
22.15ean. Antzokian.
- Hilak 8:**
'Crimen perfecto'. Elena Furiase, Pablo Puyol eta Jorge Sanzekin.
22.15ean. Antzokian.

ERAKUSKETAK

- Hilaren 3ra arte:**
Palestinari buruzko erakusketa: argazkiak, testuak... Lobianon
- Hilaren 4tik 17ra:**
Margoak: Asier Barredo. Lobianon
Ohiko ordutegian.

BESTELAKOAK

- Hilak 1:**
Palestinari buruzko jaialdia: hainbat ekitaldi. 19.00etatik aurrera. Plazan.
- Hilak 2:**
Palindromoan irakurtaldia. 18.00etan. Lobianon.
- Hilak 6:**
Laburmetraien emanaldia: laburbira (Korrika kulturala).
19.00etan. Lobiano Kultur Gunean.
- Hilak 8:**
Bertsotrama: Beñat Ugartetxea eta Odei Barroso. (Korrika kulturala). 22.00etan. Infreñu tabernan.
- Hilak 13:**
Korrika eguna: korrika txikia, musika, dantza, txokolate-jana...
15.00etatik. Orbe Kardenalaren plazan.
- Hilak 30:**
Udaberriko jaialdia: hainbat ekitaldi. 11.00etatik aurrera. Orbe Kardenalaren plazan.

Patxi López

Harategia**M. LAZKANO**

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA

Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua**OPTICA
J. CASADO**

Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA**MIGUEL
Harategia**

TXORIZOAK
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3

☎ 17 05 63

ERMUA
(Bizkaia)

**hamburguesería
TITANIK**

Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83



**Apirilaren 6an,
19.00etan, Lobianon**

Ermuko eguneroko albisteak eta hauek komentatzeko aukera

Ermuko agenda kultural osoa

Hileroko lehiaketa: Sari bereziak!


Drogeteniturrri aldizkaria, pdf-an

Inketa

...

Ermutik eta sarean euskaraz ere bagara!

www.euskalbirusa.org

 "Adituak gara ondo elikatzen irakasten"
AINARA IRIONDO ANSOLA
 Giza elikaduran eta Dietetikan Diplomata
 Komentukua 1, behea. 943 17 63 72

 **LEIRE MAYORA**
PODOLOGOA
 Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 © 943 17 47 44

Irale
 hortz klinika
Leire Irazu Garitaonandia
 • Ortodontzia • Aho zirujia
 • Pedriodontzia • Implanteak
 • Odontologia orokorra
 Zeharkale 8, behea 943 17 71 34
 www.irale.com

**UME ETA HELDUENDAKO
 PSIKOLOGIA
 KABINETEA**
 ARRATE GARITAONANDIA
 • ESTRESA • ALZHEIMER-TERAPIA
 • ANTSIETATEA • IKASTEKO TEKNIKAK
 • DEPRESIOA • UMEEN ARAZOAK
 • ERLAJAZIOA • AUTOESTIMA
 • FOBIAK • MEMORIA LANKETA
 AURRERA EDIFIZIOA 943 20 22 66
 Urtzaile 1, 1. esk. (Eibar) 646 233 182

 **san pelayo**
 clínica dental hortz klinika
 Implanteak
 Ortodontzia
 Periodontzia
 Hortz -zuriketa / Estetika dentala
 Odontologia orokorra
 Protesiak
 P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS
 San Pelayo 5, 1. Olatz Garcia Arregui
 Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

OSASUN GIDA

 **NEREA IÑIGUEZ**
HORTZ KLINIKA
 - Aho eta implante kirurgia
 - Hortzetako protesiak
 - Hortz estetika
 - Ortodontzia
 - Odontopediatria
 - Endodontzia eta odontologia kontserbadorea
 Hortz klinika berri eta handitu dugu
 San Inazio 4 Tel.: 943 030 512
 Ermua niklinika@gmail.com

fisioterapia
 eta osteopatia
 zentroa
aitziber
 Aitziber Fernández
 Telf. 943 17 60 95
 629 88 70 89
 Sexto Centenario 13,behea
 48260 ERMUA (Bizkaia)

Herboralia
 Belar-denda
 - Fitoterapia
 - Aromaterapia
 - Bach loreak
 - Janari ekologiko eta biologikoak
 - Bio-kosmetika
 - Pertsonalizatutako dietak
 - Teak pisura
 - Masajeak
 Goienkale 4 - Ermua / 943 17 37 04

Yoga eskola
 Arnasketa eta ariketa fisiko egokiak
 Erlaxazioa eta meditazioa
 Osteopatia eta bertebrologia
 Anginak sendatzeko masajea

 San Roke 24, behea
 943 74 85 93
 685 722131 (Idoia) - 639 652729 (Lourdes)

Osasun gidan agertu nahi baduzu,
 deitu 943 17 93 50
 edo 688 63 28 76 telefonora